

Oier Arrolaza

DANTZARIA

Olinpiar dantzak

Londresen urduri daude. Eta jendea urduri jartzen denean eztabaidan hasten da. Horrela baietz eta horrela ezetz. Badute arrazoirik urduri jartzeko. Suerte txarra da gero Olinpiar Jokoak txinatarren ondoren antolatu beharra. Azpiegiturak txukun prestatuko dituzte, bisitariei harrera egiteko ez dute ingeles ikastaro berezirik antolatu beharko, eta Elton John beti dago prest bere betaurreko berriak mundu osoari erakusteko. Baina zer dantzatuko dute hasiera eta bukaerako zeremonia horietan? Horrek piztu du eztabaida Ingalaterran.

Olinpiar jokoek uzten duten irudi nagusietakoa da zeremoniatako dantza. Azken batean txotxongilo kontua da. Milaka bolondres bildu eta hara eta hona joanarazi behar dituzu, denak batera, ondo sinkronizatuta eta momentu bakoitzari dagokion koloreko kapusaia atera eta ezkutatu. Ordenagailuz diseinatutako mugimenduak izaten dira, eta gero “dantzari” bakoitzak bit-arena egiten du 0 1 0 0 1...

Txinatarrak dira onenak txinatarrarena egiten, eta olinpiar zeremonien txotxongilo dantza txinatarrak asmatu ote zuten –*Made in China* omen da hori ere– susmoa zabaldu da Ingalaterran. Ikusi ditugu milaka dantzari txinatar ikuskizun harrigarria egiten eta orain urduritasunak Londresen. Zenbaitek



DANI BLANCO

dio Royal Ballet-aren esku utzi behar dela kontua, beste zenbaitek dio hobe dela *break dance* erakustaldi bat egitea, baina askok eta askok *morris* dantzariengan jarri dituzte begiak. Milaka *morris* dantzari bildu eta ikuskizun erraldoia egin behar dela diote.

Euskal ezpata-dantzarien parekoak izan litezke Ingalaterrako *morris* dantzariak. Baina badago alderik. Adibidez, adinean –dantzari helduak izan ohi dira *morris* gehienak– eta dantzari buruzko jarreran. *Morris* dantzariak ez diete batere sinpatiarik dantzari pilaketei. Dantzari eta talde bakoitzaren nortasun berezian eta dantzakera propioan sines-

ten dute, eta futbol zelai batean milaka dantzari gauza bera egiten aritzea erabat zentzugabekoa iruditzen zaie. Horregatik oso uzkur ageri dira Olinpiar ekitaldian milaka *morris* dantzari batera dantzatzeko proposamenen aurrean: “Gainera –gehitzen dute kritikoek– saiatuta ere, ez ginatke denok batera dantza egiteko gai izango! Ez gara ez robotak ez txinatarrak!”.

Lau urte aurretik eztabaidarako, eta ez justu amore emateko. *Morris* dantzariak ohore olinpikoari uko egiten badiote, haien irudiak orde-nagailuz sortu eta klonatzea proposatu du batek. Ez dago ihesbiderik. Eskerrak Bilbok ez duen –oraingoz– olinpiar ametsik. ■



Txinatarrak dira onenak
txinatarrarena egiten, eta olinpiar
zeremonien txotxongilo dantza
txinatarrak asmatu ote zuten
–*Made in China* omen da hori ere–
susmoa zabaldu da Ingalaterran



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Izan genuen topaleku. Oken-do kalean. Donostian. Pasai Antxokoa? Halakoak ezagutuko dituk noski. Berehala sortu genuen elkarrekiko hurbilketa. Zinemaren berri ematen zigun. Eta Donostiako Zinemaldiaren garaian, egunero ikusten genuen elkar, gure kritikari kronika-egile ofizialak egunero bisitatzen baikintuen. Militantea, euskaltzalea. Ez dira gutxi egindako lanak. Musikak estutzen zizkigun harremanak, eta noizik behin eguneko menua konpartitzen genuen. Tertulia. Eta jazzaldiek ere ezagutu zituen bere artikuluak gurean zintzoki. Gure kantaldi-tarra ere behin baino gehiagotan etorria zen. Ez genuen

Zeruko Argia

inoiz hitzik gurutzatu horretaz. Zirkunstantziak aldendu gintuen elkarrengandik eta hondar urte hauetan ez dugu harremanik izan. Hau idatzi aitzin jakin dut zendu dela. Xabier Portugal. Orain hilabete izan nuen bere eritasunaren berri, bere koinatu baten bidez, baita aita nor zuen jakin ere: garai bateko Easo Koruko Portugal baritono baxua, kantari bikaina. Ume eder bat. Pentsatua nuen berarekin telefonoz hitz egitea, gaztetan bere aitarekin dozena erdi bat aldiz kantatzeko zoria izan nuela jakitera emateko, baina nire asmoa bete gabe joan zaigu, eskukoari pare bat aldiz imintzioa egin eta beste baterako utzita nuela asmoa. Pena. ■